

**UDALAREN LOKALAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA**

**1. araua**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra baimendutako erabilera hasten denean sortzen da, baina prezio publikoaren zenbatekoa, gutxienez, ekitaldia egin baino bi egun lehenago gordailatu beharko da.

3. artikulua.- Interesdunak erabiltzeari uko egin ahal izanen dio kasuan kasuko ekitaldirako ezarritako data baino hogeita lau ordu lehenago, eta kasu horretan prezio publikoaren % 50 itzuliko zaio.

4. artikulua.- 1) Udalak bere lokalak erabiltzeko baimena nori ematen dion, harek du prezio publikoa ordaintzeko betebeharra.

2) Ez dute prezio publikoa ordaindu beharrik beren estatuetan helburu gisa honako hauen interesak defendatu eta sustatzea jasota dituzten fundazioek eta elkarteek: beren baitan beste pertsonak hartzen dituzten familien zein familia horiek hartutako pertsonen interesak eta terrorismo-ekintzak edo etxeko indarkeria pairatu dituzten biktimenak.

3) Hizkuntza Eskola Ofizialak ez du ordaindu beharko prezio publikorik Calderería kaleko areto nagusia bere jarduerak akademikoak garatzeko erabiltzeagatik, betiere Eskolako zuzendaritzak aretoa erabili behar duela denbora nahikoak jakinarazten badu.

Erabilera

2) Baimen horrek jaso ahalko du eskatzaileak berme bat eratzeko betebeharra, balizko kalteengatik edo baldintzak ez betetzeagatik erantzuteko beste joko duena. Gordailua itzultzeko edo hura erantzukizunei aplikatzeko, txostena egin beharko da aurrez, bertan azalduta erabili diren lokalak nola gelditu diren.

3) Armen Aretoari dagokionez, hura erabiltzeko baimena emanen zaie entitate publiko edo pribatuei ekitaldiak egin ditzaten biltzarren, bilera profesionalen, konbentzioen, sustapen-ekitaldien edo beste zenbait ekitaldi partikularren esparruan hura kudeatzen duen alorrak garatu behar dituen erabilera-arauetan ezarriko diren baldintzekin bat, aretoaren baldintzen arabera.

6. artikulua.- Jaieguntzat hartuko dira Udal honetako langileen lan-egutegian halakotzat ezartzen direnak.

Tarifak

7. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

**TARIFA-ERANSKINA**

<b>I. EPIGRAFEA.- CALDERERÍA KALEKO ARETOAREN, DESCALZOS KALEKO ERABILERA ANITZEKO ARETOAREN EDO ANTZEKO LOKALEN ERABILERA, AGUR ZIBILETARAKOA BARNE</b>	
- 3 orduko edo horien zatiki baterako lagatzea, egunean,	65,10 euro
- 3 ordutik 6ra bitartean lagatzea, egunean,	112,25 euro
- 6 ordutik goitik lagatzea, egunean,	163,75 euro

<b>II. EPIGRAFEA.- BEHERAPENAK CALDERERIA KALEAREN 11 ZENBAKIKO ARETOA EDO ANTZEKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK</b>	
II.1.- Lokala gutxienez 5 egunez erabiltzen bada jarraian	% 20
II.2.- Lokala gutxienez 7 egunez erabiltzen bada jarraian	% 30
II.3.- Lokala erabiltzen bada Udalak irabazi-asmorik gabeko herritar-elkarteei zein merkataritza eta turismo sektoreetako elkarteei baimendutako jarduerak egiteko, betiere elkarte horiek Udaleko Elkarteen Erregistroan izena emana badute:	% 75

<b>III. EPIGRAFEA.- ZIUDADELAKO ARMEN ARETOAREN ERABILERA (BEHEA)</b>	
- 3 orduko edo horien zatiki baterako lagatzea, egunean,	150,00 euro
- 3 ordutik 6ra bitartean lagatzea, egunean,	300,00 euro
- 6 ordu baino gehiagorako lagatzea, egunean,	600,00 euro
Lokala jarraian gutxienez 2 egunez erabiltzen bada, honako beherapen hau egingen da:	% 20
Jaiegunetan edo 21:00etatik aitzina erabiltzen bada, prezio publikoari honako igoera hau aplikatuko zaio:	% 20